

Gaia	Foro irekiko taldearen bilera, 2. KONPROMISOA EZARTZEKO: OPEN DATA EUSKADI ETA LINKED OPEN DATA, EUSKADIKO OGP 2018-2020 EKINTZA-PLANETIK
Eguna:	2018ko abenduaren 20a

## Aurreko bilerako edukiak berrikustea

Aurreko bilerako (2018-11-23) edukiak birpasatu ziren, iruzkinak edo/eta iradokizunak jasotzeko, honako hauek hizpide:

- Datu irekiko atarien bilakaera.
- Datu irekien berrerabilerari eragiten dieten faktoreei buruzko datu ezagunak.

## Aurreko bileratik egindako jardueren zerrenda. Informazio-iturrien azterketa.

Egiatzatu denez, Euskal Autonomia Erkidegoko datu irekien atariak sailkapen desberdinak erabiltzen dituzte argitaratzen dituzten datu-motetarako, eta, ondorioz, zailagoa da azterketa bakarrean jorratzea herritarrek zein datu eskatu eta kontsumitzen dituzten gehien.

Halaber, informazio-sailkapen hori agertzen da dagoeneko OGPren kide diren eta alderatu daitezkeen beste erakunde batzuentzat, eta sailkapenak egiteko modua desberdina da horietan ere.

Planteatu denez, proiektuaren ostean, sailkapen horren inguruan adostasun bat lortu beharko litzateke, eskura dauden datu irekiko iturri guztiek berengain hartzeko modukoa.

## Aurreko bileratik egindako jardueren zerrenda. Zuzeneko eskaria ebaluatzeko jarduerak.

Honako hauen azterketen emaitzak aurkeztu ziren:

- **Eusko Jaurlaritzaren atarira sartzeko eskubidearen eskariak.**

Ingurumenari eta osasunari buruzko informazioa da gehien eskatu dena kualitatiboki. Administrazio publikoaren kategoria ez da kontuan hartu, eskari guztiak sartzan baitira alor horretan.

Gainerako erakundeetara sartzeko eskubidea aztertzeo aukera planteatu zen.

**- Herritarren informazio-bulegoetara egindako eskariak.**

Emaitza horien barruan, ahal den neurrian, iragazi egin beharko lirateke erakundearen kanpaina zehatzekin lotuta daudenak. Era berean, administrazio desberdinak dituzten eskumen desberdinak planteatu ziren, herritarrek eskatzen duten informazio-mota baldintzatzen baitute. Kualitatiboki, eta lehen adierazitako baldintzekin, gehien eskatu diren gaien artean daude etxebizitza, gizarte-gaiak eta hezkuntza, eta, ondoren, Gobernu eta administrazio publikoa, segurtasuna eta barne-saila, eta lana eta enplegua.

**- Euskobarometroa**

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen kezkarik handienak azertu ziren. Emaitzen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak gehien kezkatzen dituzten gaiak honako hauek dira: enplegua (kezkarik handiena, aldearekin), gizarte-desberdintasunak eta ongizatea (pentsioak barne).

## **Aurreko bileratik egindako jardueren zerrenda. Zeharkako eskaria ebaluatzeko jarduerak.**

- Aplikazioen azterketa, datu irekiak berrerabiliz. Gehien sortu diren aplikazioak ingurumenarekin, gobernuarekin, administrazio publikoarekin eta garraioarekin lotutako gaiak dituztenak izan dira.

### **Inkesta herritarrei**

Eusko Jaurlaritzaren atariko inkesta-sistemaren bidez, sei galderako inkesta bat diseinatu da, honako helbide honetan ikus daitekeena: <http://use.encuesta.euskadi.net/index.php/admin/survey/sa/view/surveyid/458882#> (Ikusi eranskina)

Inkesta hori eranskineko gizarte zibilaren inkestaren antzekoa da, baina kasu honetan pertsonari kolektibo batean edo hainbatean izena emateko eskatzen zaio, modu boluntarioan, ondorengo irudian ikus daitekeen bezala:

¿A qué grupo considera usted que pertenece? (marque todos los grupos que considere)

Marque las entradas que correspondan

- Soy principalmente un/a Ciudadano/a
- Pertenezco principalmente al Tercer sector
- Pertenezco principalmente a Sector privado
- Pertenezco principalmente a Sector público
- Pertenezco principalmente a Medios de Comunicación
- Pertenezco principalmente a Sector Académico
- Pertenezco principalmente a una Organización de la sociedad civil
- Pertenezco principalmente a otras entidades o sectores

## Kasu praktikoa

Datu irekiek herritarren beharrian esplizitu eta inplizituei nola erantzun diezaieketen azaltzen du kasu praktiko batek, honako gai hauetan:

- Enplegua
- Ekoizpen ekonomikoa
- Lanean txertatzea
- Banaketa geografikoa
- Industria lotuak / nabarmenak
- Langileen generoa

jarduera-sektore batekin lotuta, eta osasuna eta ingurumena sektoreetako kasuak aurkezten dira.

## Role play

Ingurumenaren gaian, pertsonak hiru taldetan banatzen dira (herritarrak, hondakinak sortzen dituen sektore publikoa, kudeatzaile publikoa)

Taldeko helburu bat edo batzuk zehazten dira, eta horren arabera identifikatzen dira helburua betetzeko planteatu behar diren galderak. Galdera horietan oinarrituta identifikatzen dira galdera horiei erantzun diezaieketen informazio-multzoak (datuak).

Taldeetako bakoitzerako erabilgarri izan daitezkeen informazioak zehaztea eta informazio horiek dagoeneko argitaratzen ari ote diren zehaztea (ondoren) da azken helburua.

## Lantaldeen emaitzak

Sektore pribatua. Xedea: Hondakinak kudeatzearen kostua optimizatzea.

Identifikatutako datuak.

- Hondakinak kudeatzen dituzten enpresen erregistroa.
- Hondakinen sorreraren estatistikak edo sektoreko kostuak. Ingurumen-arloko ikuskapenak.
- Hondakinak gutxitzeko teknologien zerrenda europarra eta lan-prozedurak.
- Hondakinak tratatzeko teknologiak hornitzen dituztenen zerrenda.
- Hondakinei buruzko iritzi publikoaren inkesta → Hondakinen tratamenduak gizartean duen kostuaren ebaluazioa.
- Hondakinak berrerabiltzen dituzten erakundearen erregistroa.
- Hondakinen kostu logistikoa.
- Hondakinak kudeatzearekin lotutako istripuak.
- Hondakinen kudeaketaren arloko plantilletako prestakuntzari buruzko datuak.
- Hondakinen tratamendurako laguntzei eta ikerketei buruzko datuak.
- Hondakinen tratamendurako laguntza fiskalak.

Administrazioaren sektorea. Xedea: Kutsaduraren murrizketa.

Identifikatutako datuak.

- Hondakin guztien sailkapena eta administrazio bakoitzaren eskumenak eta legeak.
- Hondakin-mota bakoitzerako, kalitatea/eragina indizeei eta neurketan eragina duten faktoreei buruzko datuak.
- Kutsadurarekin lotutako datu epidemiologikoak.
- Isuriei buruzko datuak.
- Ingurumenaren arloarekin lotutako jarduera-lizentziei buruzko datuak.
- Ingurumeneko jardueretarako aurrekontuko partida ekonomikoak.
- Ikuskapen-txostenen emaitzak.
- Urak arazteko eta tratatzeko guneetarako diru-laguntzak.

Herritarrak.

Identifikatutako datuak.

- Ibilgailuen #, kategoriaren arabera.
- Erabiltzaileen %, bitarteko bakoitzaren arabera.
- Berogailuen sailkapena, erabilitako energiaren arabera.
- Tenperatura, plubiometria, presioa eta haizea.
- Industriak, kutsatzaile-motaren arabera.
- Erregai fosilen hornidurak.
- Hondakin arriskutsuen kudeaketa.
- Osasuneko eraginak, kutsadurarekin eta poluzioarekin lotuta.
- Biztanleen eta biztanleko ratioen eta horien banaketaren inbentarioa.
- Bizikleta-bideak eta bizikleten erabilera.
- Biodibertsitatearen adierazleak eta espezie inbaditzaileen presentzia.

## Hurrengo bilera

Otsailak 4, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregia (2. Solairua, 2. Sala) - Helbidea: Gipuzkoa Plaza,  
z/g, 20004 Donostia

Ordua: 15:30 - 17:30

## ERANSKINA. Inkesta gizarte zibilari

Gobernu irekiaren planean inplikaturako gizarte zibileko kideei zuzendutako inkesta.

**GALDERA ITXIA** Badakizu zer diren datu irekiak?

- Bai
- Ez

**GALDERA ITXIA** Inoiz sartu al zara Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoren baten datu irekien atarian?

- Bai
- Ez

**GALDERA ITXIA** Zertarako erabili dituzu eskuratutako datuak?

- Informazioa
- Ikerketa akademikoa
- Proiektu publikoa
- Analisi ekonomikoa
- Kazetaritza
- Gizarte-auditoretza
- Negoziak
- Proiektu hiritarrak
- Beste batzuk (zehaztu)

**GALDERA ITXIA** Hurrengo kategorietako zeinetatik irudituko litzaizuke erabilgarria informazioa edukitzea, maila pertsonalean edo profesionalean erabiltzeko? (markatu egokitzat jotzen dituzun kategoria guztiak)

- Zientzia eta teknologia
- Merkataritza
- Kultura eta aisia
- Demografia
- Kirola
- Ekonomia
- Hezkuntza
- Enplegua
- Energia
- Ogasuna

- Industria
- Legegintza eta justizia
- Ingurumena
- Landa-ingurua
- Osasuna
- Sektore publikoa
- Segurtasuna
- Gizartea eta ongizatea
- Garraioa
- Turismoa
- Hirigintza eta azpiegiturak
- Etxebizitza
- Ez litzaidake erabilgarria irudituko horietako ezeinen informazioa edukitzea

**GALDERA IREKIA** (Aurreko kategoriaren bat markatu bada) Zehaztu zein informazio edo datu-multzo izan nahiko zenukeen aurreko galderan markatutako kategorien artetik.

**GALDERA IREKIA** Zein informazio edo datu-multzo nahiko zenuke eduki benetako denboran?

**GALDERA ITXIA** Inoiz egin duzu eskariren bat, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatuz?

- Bai
- Ez
- benetako denbora?

**GALDERA IREKIA** (aurreko erantzuna baiezkoa izan bada) Zein informazio edo datu-multzo eskatu duzu?